



Prestakuntza Fondona

Administrazioak eman duen informazioaren arabera, 2007ko urtean egindako ikastaroen diru-laguntzak eskatzeko epea ***otsailaren leian hasi eta 29an bukatuko da.***

Laguntza hauek eskuratzeko, 2007 urtean Sailarenpean gutxienez egun bakar bateko lana egiaztatu behar da.

Dokumentazioa:

- Eskabide-orriaren bidez egin behar da (Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan).
- NAN fotokopia
- Ikastaroa ematen duen entitateak egindako egiaztatiri/ordainagiria, honako datu hauek dituela: ikaslearen izena, ikastaroaren izena, iraupena eta balioa, beti ere urteari dagokiolarik.
- Ikastaro horiei dagozkien urteko banketxeko abonu-agiriak.

(Agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dute, baina kopiak ere onartuko dira jatorrizko zigilua baldin badute).

Lanpostu Eskaintza Publikoa

Behin betiko zerrendak argitaratuta

Otsailaren 4an, astelehena, Hezkuntza-Laguntzako Espezialisten LEPerako ***onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda*** argitaratu da. Zerrendak Hezkuntza Ordezkaritzetan, Sailaren web orrian (www.hezkuntza.net) ikusi ditzakezue edo **LAB** sindikatuak Bilbon, Donostian eta Gasteizen dituen egoitzetara deitzen. Izangaia kanpoan geratu bada, horren zergatia zerrendan azalduko da.

Onartutakoen eta kanpo utzitakoen zerrendaren aurka, ***gora jotzeko errekurtsua*** aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari, ***hilabeteko epean***, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proba

Atariko proba: ***martxoaren leian***

HE1: 9:00

HE2/HLEA: 11:00

Informazio gehiago lortzeko kontsultatu Sailaren web orrian:

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net >Euskara >Hizkuntza Eskakizunak